


# Cocomm F720 telefonoaren gida azkarra



- |  |   |
|--|---|
| 1. Idulkia   | 1. [📞] Deia amaitzeko tekla/Piztekoa eta itzaltzekoa  |
| 2. Telefonoaren entzungailua                                 | 2. [📵] Isilik moduaren tekla                          |
| 3. Ukipen-pantaila   | 3. [📞] Deitzeko tekla                                 |
| 4. Jakinarazpenetarako LEDa                                  | 4. [R] Berriz deitzeko tekla                          |
| 5. [📞] Atxikitze tekla                                       | 5. [📞] Esku libreko tekla                             |
| 6. [↔] Transferentzia-tekla                                  | 6. Mikrofonoa   |
| 7. [🗣️] Multikonferentzia-tekla                              | 7. [#] Traol tekla                                    |
| 8. [☰] Menua   | 8. [*] Izartxoaren tekla                              |
| 9. [←] Atzera  | 9. Teclatu alfanumerikoa                              |
| 10. [M1...M4] Markatze bizkorreko tekla                      | 10. Datuetarako MikroUSB-ataka                        |
| 11. Norabide-botoia, baieztatzeko botoia eta bolumen-botoia. | 11. Entzungailuetarako/esku librerako jack konektorea |

## Aplikazio-menua

Gailua piztu eta konfigurazio-prozesua amaitutakoan, menu nagusia pantailan agertuko da. Sakatu ezkerreko hautaketa-tekla aplikazioen menura sartzeko eta erabiltzaile-interfaze hau bistaratuko da pantailan.







- |                  |                    |
|------------------|--------------------|
| 1. Kontaktua     | 7. PC Suite        |
| 2. Mezuak        | 8. Erlojua         |
| 3. Historia      | 9. Galeria         |
| 4. Kalkulagailua | 10. Telefonoa      |
| 5. FM irratia    | 11. Ezarpenak      |
| 6. Musika        | 12. SIM zerbitzuak |

Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: <https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonos-fija>




Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590

# Cocomm F720 telefonoaren gida azkarra


## Dei bat transferitzea

1. Dei bat sartzean, hartu entzungailua edo sakatu [  ] tekla deiari erantzuteko.
2. Sakatu [  ] tekla sarrerako deia eteteko eta beste telefono-zenbaki batera edo agendako beste kontaktu batera bigarren dei bat egiteko, edo sakatu **Opciones** eta aukeratu **Añadir llamada** menuan.
3. Bigarren deia aktibatuta dagoenean, sakatu [  ] tekla sarrerako deia bigarren kontaktuari transferitzeko, edo sakatu [  ] tekla bigarren deia aktibo egon baino lehen "galdetu gabe" transferentzia egiteko.

## Hiruko dei bat egitea

1. Dei bat sartzean, hartu entzungailua edo sakatu [  ] tekla deiari erantzuteko.
2. Sakatu [  ] tekla sarrerako deia eteteko eta beste telefono-zenbaki batera edo agendako beste kontaktu batera bigarren dei bat egiteko.
3. Bigarren deia aktibatuta dagoenean, sakatu [  ] tekla, edo sakatu **Opciones** eta aukeratu **Llamada a tres**, multikonferentzia abiarazteko.
4. Prozedura hori errepikatuta, gehienez bost parte-hartzaile gehitu ditzakezu.

## Markaketa bizkorra erabiliz dei bat egitea




1. Itxaroteko moduan, sakatu memoriako tekla bat [ **M1-M4** ], edo luze sakatu zenbakizko teklatuko tekla bat [ **1...9** ] markaketa bizkorra erabiltzeko. Deia automatikoki hasiko da.
2. Deia amaitzeko, sakatu [  ] tekla edo eseki entzungailua.

## Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

1. Sartu aplikazioen menura, hautatu  ikonoa eta sakatu [ **OK** ] kontaktuen menura sartzeko.

2. Sakatu **Opciones** eta aukeratu **Importar/Exportar** bistarutzen den menuan.
3. Hautatu nondik kopiatu nahi dituzun kontaktuak (SIM txartela, telefonoa, barne-memoria...).
4. Hautatu zer helbidetan kopiatu nahi dituzun kontaktuak.
5. Hautatu kopiatu nahi dituzun kontaktuak, edo sakatu **Opciones** eta, ondoren, **Seleccionar todo**, datu-jatorriko kontaktu guztiak hautatzeko, eta **Aceptar**, eragiketa amaitzeko.

## Bluetooth® gailu batera konektatzea

1. Hautatu  konoa aplikazioen menuan, eta sakatu [ **OK** ] sistemaren ezarpen-menura sartzeko. Erabili [  ] [  ] norabide-teklak **Bluetooth** hautatzeko, eta sakatu [...] Bluetooth funtzioa aktibatzeko.
2. Sakatu [ **OK** ] terminalaren izenaren gainean, gailuaren aldi bateko ikusgaitasuna aktibatzeko, eta egin gauza bera hari lotu nahi diozun beste gailuan.
3. Sakatu [ **OK** ] **Buscar dispositivos** aukeraren gainean; terminalaren irismen-erradioan ikusgai dauden Bluetooth gailu guztiak agertuko dira pantailan.
4. Sakatu [ **OK** ] zure terminalari gehitu nahi dituzun gailuaren gainean, eta sartu eskatutako kodea bi gailuetako leiho gainerakorretan. Konfigurazioa amaitutakoan, sakatu **Opciones** lotutako gailuaren izena aldatzeko eta audio-ezarpenak egiteko.

Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoenean,  ikonoa jakinarazpen-barran agertuko da. Aurrez lotutako gailuaren bat terminalaren irismen-erradioaren barruan badago, automatikoki konektatuko da, eta  ikonoa argizatuko da jakinarazpen-barran.

Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: <https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonía-fija>

Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590